

Alurr: hiru hamarkada dantzaren taupadan





10-17

AURKIBIDEA

Iritzia Ane Urkola Agirrezabala **3**

Elkarrizketa Maider Gonzalez Garmendia, neuromodulatzailerik ez inbaditzailea Ikaztegieta **4-7**

Begirada Grafikoa Ibon Azpilikueta **9**

Asteko Gaia Alurr, 30 urteko ibilbidea ospatzear **10-17**

Baso Ertzetik Jon Ander Galarraga **18-19**

Bertsoa Ane Zubia **21**

Iritzia Onintza Lasa **23**

Erreportajea Kaka-mokordo baten aitzakian **30-33**



4-7



19-19



Azaleko irudia:
Leyre Carrasco

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 98 €

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeca Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Eider Aierbe Isasti
WEBGUNEA: Ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 • atarikide@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartzeta, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Gure zilborrera begira



**ANE URKOLA
AGIRREZABALA**
KAZETARIA

Joan den asteburuan lagun batekin asteburuia igarotzeko plana egin nuen, eta horrela joan nintzen poz-pozik kotxea hartu eta Araba aldera. Etzegarate jaitsi, eta poliki-poliki gerturatu nintzen hain ezezaguna zaigun herrialdera. Asteburu osoa askotariko gaiez hitz egiten aritu ginen, eta horien artean, euskaraz eta euskaldunon nahiez eta ezinez aritu ginen.

Izan ere, azken hilabeteetan erdigune politikoa hartu du euskarak. Egun hauetako albiste izan dira administrazioetako hizkuntza-eskakizunak atzera bota dituzten epaien inguruan *Argiak* egindako ikerketa, Korrika eta alderdi politiko nagusiek Enplegu Publikoaren Legea adosteko negoziazioak, besteak beste.

Arabara bizitzera joan zenetik, euskarari eta euskaldunei begiratzeko modua aldatu zaiola aipatu dit lagunak. Berarentzat, eguneroko erabaki politikoa da euskaraz bizitzea. Eta hori antzeman du baita ere inguruko hainbat lagunengan edo beste herrialde batean jaio eta Euskal Herrira bizitzera etorri direnen artean: euskara ikasteko eta erabiltzeko eguneroko hautua.

Hain zuzen, aipatu nion Iñaki Lurrebaso soziolinguistaren tesiaren oinarrietako bat: herritarren % 8k erdaraz hitz egiteko gaitasun handiagoa duela, eta ondorioz, askok gaztelaniaz hitz egiteko erraztasun handiagoa dutela. Orduan, lagunak erantzun zidan ea zer egin behar ote zen euskara dakiten eta gaztelania sarri-sarri eta etengabe darabilten euskaldunekin. Eta gehitu zuen eus-

kaldunok zein jarrera ditugun euskara ikasten ari direnekin, eta ea laguntzen ote ditugun prozesu horretan. Ea norengan jartzen ari ginen ardura, behin eta berriro.

Orain dela egun gutxi bertsolari lapurtar bati egindako elkarrizketa bat entzun nuen, gazteen artean fama handi xamarra duen podcast batean. Bi kazetariak bertsolariari galdetu zioten euskarak Ipar Euskal Herrian zuen egoeraz, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa leku homogeen gisa tratatuz. Elkarrizketatuak nabarmendu zuen ez zela egoera bera Lapurdiko kostaldean edota Nafarroa Behereko barnealdean. Ezta Zuberoan ere. Bi kazetariak harriduraz hartu zuten erantzuz-

«Arabara bizitzera joan zenetik, euskarari eta euskaldunei begiratzeko modua aldatu zaiola aipatu dit lagunak. Berarentzat, eguneroko erabaki politikoa da euskaraz bizitzea»

na. Badirudi egoera txarragoa izatea espero zutela. Kontrara, indar erakustaldi ederra eman digute beste behin Etxepare Lizeoko ikasleek, Baxoan matematikako azterketa euskaraz erantzungo dutela jakinarazi baitute.

Horrek guztiak pentsarazi dit ez ote dugun askotan gure zilborrera begira hitz egiten, eta akaso gure herri eta hirietako dinamiketarik kanpo pentsatzeak Euskal Herriaren osotasuna aintzat hartzen lagunduko ligukeela.



**MAIDER
GONZALEZ
GARMENDIA**
PSIKOLOGOA ETA
NEUROMODULAZIOAN
ADITUA

«Neuromodulazioak garunarekin bere hizkuntzan hitz egiten du»

Nesa neuromodulazio ez inbaditzailea egiteko kontsulta zabaldu du Ikaztegieta Maider Gonzalez Garmendiak; kiroldegian du bulegoa, eta etxez etxeko zerbitzua ere ematen du neuromodulazioan adituak.

Aitor Arroyo Askarai

Zerbitzu berri bat eskaintzen hasi dira Ikaztegieta, eta ez nolana hikoia: neuromodulazioa egiteko kontsulta bat zabaldu dute. Maider Gonzalez (Ikaztegieta, 1976) psikologo eta neuromodulazioan aditua da arduraduna, eta Nesa teknologiaren bitartez praktikatzen du neuromodulazio ez inbaditzailea. Herriko kiroldegian du bulegoa,

eta zabal azaldu ditu teknikaren xehetasunak eta nondik norakoak.

Zer da neuromodulazioa?

Orain dela hamarkada batzuk deskubritu zuten gu bioelektrizitatea garelara. Teknologia garatu ahala ikerketak egin dituzte, eta hurrengo pausoa izan zen deskubritzea gure gorputzeko funtzio

bakoitzak bere frekuentzia zuela: loak berea du; baita estresak eta antsietateak ere; eta berdin nekearekin, minarekin, kontzentrazioarekin, prozesu digestiboekin eta bestelakoekin... Eta zein den guztien puntu komuna? Nerbio sistema autonomoa; gure borondatek kanpo gertatzen dena da, eta ez dugu kontzienteki kontrolatzen.

Neuromodulazioa egiteko, gaur egun zortea daukagu, ez inbaditzailea den beste teknologia bat daukagulako esku artean, zeinak gainera gorputzaren hizkuntza berdinean hitz egiten duen: bioelektrizitatea. Labur esateko, Nesa makinak pulsu elektrikoak bidaltzen ditu, eta programa ezberdinen bitartez oreka eta egokitzeko gaitasuna berreskuratzea ahalbidetzen du.

Nola irudikatu behar dugu saioa?

Nire lana da lehen kontsulta batean egoera baloratzea: aztertzea zein den sintomatologia eta pazientearen entzutea. Horren arabera tratamendu bat zehazten dut, eta hurrengo saioan hasi egiten gara.

Martxan dagoela ez da ezer sentitzen. Eta bitartean nik esku hartze psikologiko bat egiten dut, baina ez da terapia; kasu hauetan gure helburua ez da terapia egitea, baizik eta laguntza psikologiko bat ematea.

Nola funtzionatzen du?

Makinak hainbat programa ditu landu nahi diren arabera, eta horren barruan erabaki daiteke hertzaren (Hz) frekuentzia, intentsitatea eta saioaren iraupena. Bada, horretara lotzeko erabiltzaileak eskularru eta galtzerdi moduko batzuk janzten ditu; eta horietako bakoitzak bost konektore ditu leku estrategikoetan kokatuta.

Gure nerbio sistema zuzentzen modukoa da: zainak, enborra eta adarrak ditu. Hainbat urtetako ikerketaren ondorioz ikusi dute nerbioen adarkadurek zenbait lotune dituztela; eta konektoreak horietan daude kokatuta.

«Ez du mirarik egiten; baina laguntzen du sintomatologia arintzen»



Nesa makinak pulsu elektrikoak bidaltzen ditu. **A.A.A.**

Lehen aipatu bezala, frekuentzia propioak dituzte minak, loak, estresak, antsietateak, arretak, nekeak, kontzentrazioak... Hori guztia kontuan hartuta diseinatu zituzten bederatzi programa horiek; eta kasu bakoitzaren arabera nire lana izaten da pazientearentzako konbinazio egokia erabakitzea.

Eta zein onura ditu?

Orokorrean oso onuragarria izan daiteke. Adibidez, baliagarria da insomnia eta min kronikoak lantzeko. Kirolaren arloan ere ikusi dute harreman estua duela baliabideak optimizatzearekin; eta lagungarria da giharretako minak, nekea eta halakoak azkarrago sendatzeko.

Gorputzak bere kabuz egin ditzake sendatzeko zenbait prozesu, jakina, baina honek azkartu egiten ditu. Eta zenbaitetan beharrezkoa da esku hartzea ere, gorputza ez baita bere kabuz egiteko gai.

Esan beharra daukat, hala ere, gaitz kroniko batzuk sendatzeko ere ez duela balio. Ez du mirarik egiten; baina laguntzen du sintomatologia arintzen. Ez dago etengabe egin beharrik ere, behin lanketa handiena eginda, gogorarazpen saio modukoak egiten ditugu; gorputzak baduelako memoria. Hasiarako maiztasuna txikituta eta hilabeteen edo bi hilabeteen behin egin ditzakegu saioak. Memoria horretan oinarrituta, egokitzapen azkar bat bezala da. Hori, betiere, kronikotasunari lotuta.

Zein kasurekin egin duzue lan?

Kontsultan izan ditugu hiperaktibitatea zuten umeak, gazteak, eta baita helduak ere. Haurrak ere neuromodulatu daitezke; eta berdin 80 urteko etxeko andreekin ere. Ez dago adin mugarik.

Izan ditugu gaitasun altukoak, espekto autistako jendea... Eta kasu guztietan ditu onurak,aldi bakoitzean lantzen delako arlo zehatz bat. Hiperaktibitatearekin, adibidez, arreta eta kontzentrazioa; bakoitzak frekuentzia propioak dituelako. Espekto autistan lan handia egiten dugu digestio arazoekin, idorrieriarekin, lo zikloekin... Eta zaintzaile asko ere etortzen zaizkigu. Zaintzak askotan loa moldatzea eskatzen duelako: maizago esnatzea, adi lo egitea... Eta ondoren loa bere ohiko egiturara itzul daiteke edo ez.

Hor sartzen da lanketa. Beti esaten dut neuromodulazioa dela gure gorputzean sartzea, baina atzeko atetik, bera konturatu gabe; neuromodulazioak garunarekin bere hizkuntzan hitz egiten du.

«Neuromodulazioak arrakasta izateko, pazienteak bere aldetik ere jarri behar du»

Ba al du arriskurik?

Ez. Izatez, lehen kontsultan ordubete inguru egiten dut pazientearekin, azaltzeko badituela kontraindikazio

normal batzuk: sukarra izanez gero ez da kontsultara etortzea komeni; haurdun egonez gero, ez da demostratu ezer txarririk eragiten duenik, baina badaezpada ez dugu arriskurik hartuko; eta garrantzitsuena, aparailu elektronikorik izanez gero, taupada markagailu bat adibidez, ezin da egin. Ez pertsona kaltetzen duelako, baizik eta aparailua kaltetu lezakeelako: berrabiari-zi edo itzali... Kontrara, titaniozko plakaren bat, torlojuak edo antzekorik izanez gero, ez dago inolako arazorik.

Gainera, bateragarria da beste tratamendu batzuekin ere; botikekin-eta esan nahi dut. Izatez, baditu programak ebakuntza baten aurretik prestatzeko; eta, baita ondoren azkarrago sendatzeko ere. Ebakuntza batean lesio bat egoten da, eta, ondorioz, zelulak eta ehunak berregituratu egin behar dira orban horren inguruan; eta hori dena bioelektrikoa da.

Nola baloratzen duzue prozesua?

Neuromodulazioak arrakasta izateko, pazienteak bere aldetik ere jarri behar du. Dagoeneko gai naiz pazienteekin funtzionatuko duen edo ez aurreikusteko; eta orokorrean baikorra naizela esango nuke. Espektatibak kudeatzea ere bada beste arlo bat; eta hor nabarmentzen da psikologoaren egitekoa. Besteak beste azaltzen diet hiru fase izaten direla, nola joaten garen batetik bestera... Eta uneoro baloratzen dugu prozesua.

Zentzu horretan, uneren batean ikusten badut ez dugula nahikoa aurreratzen, beste espezialista batengana bideratzen ditut. Guk ezin badugu hobetu, beste norbaitengana jo beharko du agian. Ez zait askotan tokatzen, neuromodulazioak oso ondo funtzionatzen duelako, eta talde bezala osagarriak diren diziplinak biltzen ditugulako. Baina toka liteke ezin asetzea, eta





bideratzea. Pertsona bere osotasunean aztertzen dugu, eta ongizatea da beti helburu nagusia.

Nondik datorkizu arloarekiko interesa?

Urte askotan aritu naiz lanean Gurutze Gorrian; eta bertako Osasun Planeko arduradun probintziala izan naiz. Tarte horretan lan egin dut boluntarioekin, langileekin, komunitateekin, bizilagunekin... Eta arlo ezberdinak hartu behar dira kontuan: alderdi soziala, kulturala, gizarte dinamikak... Informazio asko jasotzen genuen, baina sentitzen nuen falta zela jakitea gizakiok zein ekipamendurekin iristen garen. Eta ekipamendua da duela 150.000 urteko gizakiek zuten garun bera.

Jakin-min horretaz gain, egoera pertsonaletik ere izan zuen. Seme-alaba bikiak izan nituen, eta sekulakoa iruditzen zitzaidan haurdunaldi bera,

erditze eta jaiotegun bera, heziketa berdina... Eta ikustea ezberdin ari zirela garatzen. Horrek sekulako lilura eragin zidan.

Eta nola izan zenuen teknologia honen berri?

Aldi berdin samarrean etorri zitzaidan lanez aldatzeko aukera, eta gaur egun Oreretako Be-raun errehabilitazio zentro psiko-fisikoan egiten dut lan. Diziplinarteko talde bat gara: errehabilitazio medikua, nutrizionista, fisioterapeutak eta —ni— psikologoa. Enpresaren helburua betidanik izan da pertsonak ahalik eta bizi kalitate onena izatea, eta hori lortzeko etengabe egiten dute lan.

Bada, arduraduna urtero joaten da Madrilen egiten den fisioterapia eta errehabilitazio kongresu handi batera, eta hango stand batean zeuden Nesakoak. Arduraduna erakarri zuen mina lantzeko zabaltzen zituen aukera berriak, eta taldean proposatu zigunean, berehala konbentzitu ninduen. Lan egiteko eta pertsonen ongizatea hobetzeko sekulako aukera ematen zuen. Gainera, formakuntza eskaintzen zuten neuro-modulazioan aditu izateko, eta Kanarietako Unibertsitatearekin egin nuen prestakuntza. Horrez gain, loaren inguruan beste espezialitate bat ere egin nuen Madrilen, eta campus digitalean askotan ematen dituzte hitzaldiak askotariko espezialistek: traumatologoek, fisioterapeutek, sexologoek...

Nolatan sortu da ikaztegieta zerbitzua emateko aukera?

Inguruan interesa nabaritu nuen, eta Ikaztegieta ekartzea sekulakoa izan zitekeela iruditu zitzaidan. Proiektua aurkeztu nuen, gustatu zitzaie, eta martxan jarri dugu. Enpresan ere begi onez hartu dute, eta harrিতa daude herri txikietan erraztasunak topatu dituztelako. Hasieran Oreretan egongo naiz astean hirutan, eta, hemen, pare bat egunez; erritmoa hartu arte behintzat. Kiroldegian egongo da kontsultarako gela, eta, horrez gain, etxex etxeko zerbitzua ere emango dugu.

atarikideen ABANTAILAK


**EHUN
FISIOTERAPIA**
% 10eko
deskontua



**OREXAKO
OSTATUA**
% 10eko deskontua
dendako produktuetan



**GARAZI
LORADENDA**
30 €-ko erosketagatik
oparitxo bat



SOLUMOBEL
3.000€-ko
erosketagatik
100 €-ko deskontua



**ARRIRAN
GASOLINDEGIA**
% 1eko deskontua
beste deskontuez gain



MUGAR
% 10eko
deskontua



**GARAI
NUTRIZIOA ETA
ERRENDIMENDUA**
% 10eko deskontua



ataria

Deskontuak
iragarki laburretan,
zorion agurretan eta
eskeletan



**BABEL
LIBURUDENDA**
30 €-ko erosketagatik
% 5eko deskontua
liburuetan eta % 10eko
deskontua papergintzan




**CANORLAN
TOLOSA**
% 10eko deskontua
informatika zerbitzuetan



**MULTIOPTICAS
TOLOSA**
% 15eko
deskontua




**MAIAL
ESTETIKA ZENTROA**
15 €-ko deskontua
presoterapia bonuan



**GOZATU
ABANTAILAK:**

ataria.eus/kideak





**UDABERRIKO
ALT XOR TXIKIAK**

Inguruneak eskaintzen
dizkigun udaberriko altxor
txikiak, zapore handikoak.

Irudia: Ibon Azpilikueta.



Dantzan ospatuko dute urteurrena

Ibarrako Alurr dantza taldeak iaz 30 urte bete zituen, eta aurten ospatuko dute. Gaur emanaldi berezia egingo dute, 20:00etan hasita, Belabieta kiroldegian.

Leyre Carrasco

Hogeita hamar urte bete ziren iaz Ibarrako Alurr dantza taldea sortu zutenetik. Urteurrena ospatzeko emanaldi berezi bat egiteko asmoa izan zuen iaz taldeak, baina parte hartzaile guztiak biltzeko zailtasunak izan zituztela kontatu du Eli Nosellas taldekideak: «Zerbait berezia egin nahi genuen, eta horretarako, gaur egun Alurren parte hartzen ari den eta taldetik igaro den jendea elkartzea erabaki genuen, baina oso zaila egin zitzaigun». Gauzak honela, urtebete atzeratzea erabaki zuten, eta dagoeneko iritsi zaie eguna.

Gaur emanaldi berezia eskainiko dute, 20:00etan hasita, Belabieta kiroldegian. Bertan parte hartuko dute gaur egun taldea osatzen dutenek, baita garai bateko dantzariak ere. Horiekin batera, zuzeneko musika joko duten 15 musikari ere igoko dira oholtzara. Gaur egungo

dantza eta musika ez ezik, garai bateko koreografia eta erritmo ezagunak berreskuratuko dituzte egun berezian. Eta emanaldirako sarrera doakoa izango da.

Gazteuloren parte hartzea ere izango dute. Izan ere, Ibarrako haur, nerabe eta gazteei bideratutako zerbitzuak hamar urte betetzen ditu aurten, eta askotariko jardueraz osatutako egitarau zabala osatu dute aurtengorako. Horietako bat da Alurr dantza taldearekin batera egingo duten emanaldia. «Alurr dantza taldean dabilzan haur, gazte eta guraso asko Gazteuloren parte dira, eta beraz, emanaldi bateratua egingo dugu. Izan ere, Ibarra herri txikia da, eta eragileak elkarlanean aritzen gara beti», gaineratu du Nosellasek.

Horrez gainera, Alurr dantza taldearen urte hauek guztiak borobiltzen dituen dokumentala ere ari dira grabatzen taldeko partaide batzuk,

ASTEKO GAIA

Ibarrako Udalaren laguntzarekin. 25. urteurrenerako antzeko proiektzio bat egin zuten, baina oraingo honetan, Alurr dantza taldearen historia kontatuko dute, sorreratik gaur arte. Horretarako, taldeko partaide diren nahiz partaide izandako hainbat ikasle, irakasle, boluntario eta musikarien elkarrizketak bilduko dituzte. Duela urtebete inguru abiatu zuten proiektua, eta udarako amaitzea aurreikusten dute.

Atzera begira

Taldeak 1995ean hasi zuen bere ibilbidea, baina dantzarako tradizioa lehenagotik iritsi zen Ibarrra. 1974. urtearen bueltan bazen dantza talde bat herrian, Azkunde izenekoa. Urteak eman zituen neska-mutil talde hark txistularien laguntzaz dantza saioak eskaintzen. 1990. urte inguruan beste salto bat eman zuen taldeak. Ibarrran

dantza ikastaroak ematera joateko gonbita luzatu zioten Jose Luis Zubeldiari, eta ikastaro horietan sortu zen grina ikusita, orduko taldea dantza talde baten izaera hartzen hasi zen. Orduan jarri zioten Alurr izena taldeari; lurra du esanahia, eta mitologiako liburu batean aurkitu zuten.

Alurr dantza taldearen hastapenetatik dabil bertan murgilduta Nosellas. Azken urteetan koordinatzaile bezala aritu da, baina duela bost urte inguru ardura horiek juntakide berrien esku utzi zituen. «Kargu horren arabera antolatatu dut nire lana eta bizitza; izan ere, garai haietan, eta gaur egun seguru ere, ardura bat hartzen zenuenean hori betetzeko izaten zen, eta gero gustukoa bazen zer esanik ez. Nik ardura hori gustukoa nuen eta bizitza dedikatu diot honi; nire oporrak Alurren igaro ditut, baita nire ordu estrak ere. Kargua utzita ere, beti egon naiz la-





guntzeko prest, eta urteurrenaren aitzakiarekin hala nabil», adierazi du.

Dantza taldea behar batetik sortu zela kontatu du, eta ilusioz gogoratu ditu proiektu honen has-tapenak: «Dantza egitea gustatzen zitzaigun, herrian grina handia zegoen horretarako eta zerbait sortzeko behar bat ikusi genuen». Baina 2000. urtean makalaldi bat sufritu zuen taldeak. Jende gutxi geratu zen, eta egoera horri buelta eman behar izan zioten nolabait.

Gaur egun Sendi guraso elkarte dena, Cabezas de Padres de Familia —guraso elkarte— bezala ezagutzen zen garai hartan, eta elkarte horrek gainerako kultura taldeei eta beste herri-ko eragileei laguntza eskaintzen zion. Nosellas elkarte horren parte zen, eta herrian zegoen beharra azter-tzen hasi ziren. «Ibarran dan-tza taldea zegoela ikusi ge-nuen, eta hori bultzatu eta ber-piztu egin behar zen nolabait;

Gaur egun Ibarran bertan 17 dantza talde daude, bi urteko haurretatik hasita

orduan, horren bueltan zebiltzan gazteak bildu genituen eta zerbait berritzailea proposatu zuten», kontatu du. Edu Muruamendiaraz dantzari eta koreografoa ekarri zuten irakasle modura. Muruamendiarazek dantza tradizionalako oina-riak mantenduz koreografia, eszenografia eta arropen berrikuntzak ekarri zituen. Ordutik, no-rabide horretan jarraitu du taldeak.

Berrikuntza horiek gorakada ekarri zuten tal-dera. Inguruko herrietatik jendea Alurren ize-na ematen hasi zela gogoan du Nosellasek, eta hortik sortu ziren emanaldi berriak. Alurrek bere lehen emanaldia 2002. urteko San Barto-lome jaietan egin zuen eta bere lehen ikuskizuna 2008. urtean estreinatu zuen, *Sua* izenburupean.

«Garai hartan nobedadea izan ginen; zuzeneko musika izan genuen, eta horrez gainera, beste kanta batzuk grabatuta eraman genituen emanaldira. Jantziak ere aldatu egin ge-



nituen eta euskal dantzetan oinarritutako koreografia berri batzuk sortu genituen. Taldetxo batekin hasi ginen, eta familia handitzen joan gara», kontatu du Nosellasek.

Horren atzetik etorri dira beste hainbat emaldi, kasu honetan, Aiert Beobidieren eta Iñaki Agirrearen zuzendaritzapean: *Oinazez, Izanak dirau, Uztartuz, Lanabesak, Soinaz, Bi punturen artean, Maruxak eta Irradak*, besteak beste. Koreografo ospetsu eta dantzari gazteen ekarpen berriztatzaileek euskal pauso eta dantza tradizioaletan oinarritutako koreografia berriak sortzeko aukera ahalbidetu die Alurr taldekoei, eta gaur egun 17 ikuskizunek osatzen dute taldearen zerrenda; azkena, *Hamaikua* izenekoa, zeina maiatzaren 24an, igandean estreinatuko duten, 18:00etan, Ordiziako Plaza Nagusian.

Alurr handitzen

Gaur egun Ibarren bertan 17 dantza talde daude, bi urteko haurretatik hasita. Eta horrez gain, inguruko herrietan ere dantza eskolak ematen ditu Alurrek, besteak beste, Bidania-Goiatzen, Lazkaon, Ordizian, Legorretan eta Zaldibian. «Herri bakoitzean dantza taldea berpiz-

ten eta sortzen saiatu ginen, eta nik uste herri askotan lortu dugula, nahiz eta orain horietako asko independenteak izan. Lan hitzarmenetan eta herriarteko lanetan Amaiur Luluaga taldeki-deak hartu zuen horren ardura, eta bai bera eta baita Alurren dabilzan eta igaro diren dantzari asko aritzen dira irakasle herri horietan. Baina orain herri askotan dantza talde independenteak izatea lortu da, eta hori ere bazen gure helburua, Ibarako gure etxea gutxitzea eta besteak zabaltzea», azaldu du Nosellasek.

Plaza, oholtza eta txoko ezberdinak pasatu ditu urte hauetan guztietan Alurr dantza taldeak. Gehienbat inguruko herrietan ibili izan da bere ikuskizun eta dantzak aurkezten, baina urrutia- go ere mugitu dira Alurrekoak urte hauetan, hala nola, Frantziara, Esloveniara, Alemaniara, Irlandara, Italiara, Galiziara edo Kataluniara. «Garai batean Alurrekin egiten genituen bidaiak gure oporrak izaten ziren, baina gaur egungo gazteek edozein momentutan joaten dira oporretara eta edozeinek ez ditu gordetzen oporrak dantza egitera joateko. Gauzak asko aldatu dira, gu aldatu garen bezala, baina zikloak dira eta gu ere garai berrietara egokitzen goaz», esan

«Ibarra herri txikia da, eta eragileak elkarlanean aritzen gara»
ELI NOSELLAS

du. Hala ere, tradizioaren garrantzia mantentzen jarraitzen dutela azpimarratu du, «nahiz eta jende askok ez duen lotura hori ikusten».

Tradizioa oinarri

Tradizioa eta berrikuntza uztartzea da Alurr dantza taldearen bereizgarrietako bat, eta «pikkanaka» garatu den ezaugarri bat dela azaldu du Nosellasek: «Jantziekin beti arriskatu izan dugu gehiago, eta jende askok azalpen bat jaso arte ez du ulertzen lotura hori. Koreografiarekin eta musikarekin berdina gertatu zaigu, baina pixkanaka hori dena lantzen joan gara». Dena dela, nabarmendu du ez dutela «inoiz» galtzen «tradizioaren oinarria» eta hori nabaritzen dela, batik bat, dantza pausoetan.

Dantza eskolan, oinarritik, pauso tradizionalak ikasten dituzte lehenik. Gerora, agian, dantza bera beste musika batekin egiten ikasten

«Alurr bezalako proiektu hauek gure kultura zabaltzeko balio dute»

ELI NOSELLAS

dute. Eta, azkenik, garaikideak tradizionalarekin izan ditzakeen puntu komunak aurkitu eta bate-tik besterako pasabide bat nola sortu lantzen dute.

Taldekideek hala adierazten dute Alurren filosofia: «Gure arbasoek gure erraietan landutako haziak ereiten dihardugu. Eta guk, dantza dugu transmisio, dantza dugu ilusio, perkusio, emisio, adorazio, inspirazio, bokazio, deklarazio eta tradizio. Tradiziotik sorkuntzara egiten dugun jauzi horretan sartzen da pasioz eta erritmoz egiten dugun pauso bakoitza. Tradizioa irudikatu behar dugunaren ardura aspalditik hartua dugu, baina hori bera garaikidearekin nahasten dugu. Azken finean, hitzekin esaten ez dakigun hori dantzarekin kontatu ahal izateko. Euskal kulturatik errotu baina beste kulturetatik elikatzen garen dantza taldea gara. Jatorri eta iturri desberdinetatik gure kultura zabalduz eta aberastuz».







Boluntario sarea

Guraso eta boluntarioen lana ere azpimarratu nahi izan du Nosellasek: «Aurpegia ematen dugunok batzuk bakarrik gara, baina, gero, atzetik beste asko dabilta, eta jende hori behar-beharrezkoa da hau dena aurrera ateratzeko, eta hori geroz eta zailagoa da lortzen». Oraingo emanaldian, esaterako, urte guzti hauetan boluntario moduan aritu direnei antolakuntza lanetan aritzeko eskaera egin dietela kontatu du: «Laguntza taldea deitzen genion hori izango dugu emanaldian, emanaldian lan asko egongo baita».

Horretarako, konpromisoa beharrezkoa dela azpimarratu du: «Garai batean taldean zeuden boluntario asko gurasoak ziren, eta horietako askoren seme-alabak jada ez zeuden taldean, eta haiek boluntario gisa jarraitu zuten. Zorixarrez, jada ez dago garai batean zegoen grina hori. Gizarteko edozein momentutan zerbait gertatzen denean atzetik norbaitek egon behar du, eta hori familia guztietan ere gertatzen da; atzetik pentsatzen ari den norbait ez badago, gauza horiek kili-kolo egongo dira eta».

Nosellasen ustetan Alurr ez da dantza talde hutsa, «proiektu bat baizik», eta Alurr bezalako proiektu haiek euskal kultura zabaltzeko balio dutela adierazi du: «Alurrek ere tradizioa transmititzen du, bakoitzak bere modura ulertu dezakeena, baina gure kultura, gure jantziak, gure ohiturak eta gure baloreak transmititzen ditu, eta beraz, proiektu bat da. Gaurko egunean, ordea, ez da hala ulertzen eta hor dago desberdintasun handiena. Alegia, gaur gaurkoz eskolaz kanpoko ekintza gisa ikusten dute, eta, agian, esentzia hori galtzen ari gara».

Dantzari Txiki Eguna, bihar

Alurren dagoeneko prest dute gaur egingo duten urtemuga ospatzeko emanaldi berezia. Hilabete luzez lanean igaro ostean, emaitza, azkenean, gaur izango da ikusgai Belabieta kiroldegian. Baina Ibarako dantzariak horrekin nahikorik ez, eta bihar ere dantzarako aukera izango dute.

Izan ere, bi urtez behin antolatzen duten Dantzari Txiki Eguna ospatuko dute Ibarra. Euskal Herriko dantzariak eta dantza taldeek ere parte hartuko dute larunbatean, besteak beste, Arrasatetik, Oñatitik, Beratik eta Anoetatik bertaratuko baitira, 10:30ean, Ibarako San Bartolome plazara. Eguerdian bazkaria egingo dute, eta arratsaldean, Ttipikaren doinupean egingo dute dantzaldia.

Alurr dantza taldekoek asteburuko emanaldietara joateko gonbita zabaldu dute: «Dantza eta musikaz beteriko emanaldiak izango dira, baita sorpresaz josiak ere. Ez galdu!».





**JON ANDER
GALARRAGA ZUBELDIA**
BIOLOGOA

Basoko urde hura

Hor ziak, Joxe Manuel, ezkerretik aterako dut», esan zuen ahapeka Agustinek, eta bat-batean, ezkerreko sasietatik barrena zalapartaka, basurde ar bikain bat atera zen lasterka. Joxe Manuel, Ezkiagako semea, Larrunbarreneko baserrikoa, bi belaunalditan ehiztariak eman dituen baserri oparokoa... bere Browning Bar MK3-arekin basoko urdeari bihotzera apuntatzen dio, eskopetaren punta basurdearen mugimenduarekin batera ipintzen da erritmoan...

Joxe Manuelek arnasa sakon hartzen du, izerdi tanta kopetatik behera; alboan, Agustín: «Emaio, Joxe Manuel, emaiok, *de dioooo!!!*», oihukatzen du. Baina Joxe Manuel ehiztariaren trantzean dago; dena isilik dago, soilik basurdea eta Joxe Manuelen arnasa entzuten da, eskopetaren pisua nabari du Joxe Manuelek. Joxe Manuel eskopeta da eta eskopeta Joxe Manuel da, eta halako batean: Danba! Berunezko puntadun kalibre altuko Remington bala zuzenean basurdearengana doa, oso geldo, Joxe Manuelek begia *puntomiratik* altxatu du, basurdeak tiroa entzun duen albora burua jiratu du, eta une batez Joxe Manuelen begiekin topo egin du iraileko igande goiz lehorrean.

Basurdeak bere bizitza osoa segundo batean paretik pasatzen ikusi du. Gogoan du abuztuko goiz batean lehen aldiz bere zulotik nola atera zen bere lau anaiekin batera. Egun hartan bere amak izena jarri

zuen denei, berari Rikardo jarri zion aitaren omezez. Rikardo anaietan txikiena izan zen, azkena jaiotzen, azkena titia hartzen, beti txiki eta ahul, eta nola ez, liskar guztietan hozkada gehienak jasotzen zituena; ozta-ozta atera zen bizirik lehen hilabetetan.

Baina Rikardo basurde arrunt batek egin beharrekoa baino zerbait gehixeago egitera etorri zen mundu honetara. Adore handiz irten zen goiz batean bere zulo segurutik mundua jatera, baina atera eta berehala sasi artean trabatuta geratu zitzaion ezkerreko barrabiltxoa, gero putzu batera erori zen, eta berriro bere zulutxora bueltan zihoanean, inork etortzen ikusi ez zuen oreinkume batek ezkerreko belarritik koska egin zion.

Astebetera, amak bere familia osoaren aurrean aurkeztu zituen Rikardo eta bere anaiak, taldea begi bat falta zitzaion eme zahar batek gidatzen zuen, eta Rikardoren anaiez gain, beste bi eme heldu eta lauzpabost basurdekume zeuden, urruneko lehengusuak izango ziren, eguna Rikardo zirikatzaren pasatzen zuten madarikatu haiek. Goizez talde osoa basoaren barrenean etzanda egoten zen, sasi artean etzanda, eme zaharrenaren kontu xaharrak entzuten, otsoak basurdekume gaiztoak jan egiten zituela, gauean otsoen ulua entzuten zela... Rikardok sekula ez zuen otsorik ikusi, ezta haren ulurik entzun ere.

Gaua iristean basoaren babesetik irten, eme nagusiaren atzetik lerroan jarri eta gau osoa hara eta hona ematen zuten janari bila. Eme zaharra oso jakintsua zen, bazekien ura non topatu, artoa non eta noiz

«Joxe Manuel eskopeta da eta eskopeta Joxe Manuel da»



hazten zen, eta boilurrik gozoenak bilatzeko non egin uxarrean.

Urtebetera ordea, Rikardo, basurdekume polit eta pottoloa, basurde nerabe bihurtu zen, letaginak, eta batez ere barrabilak hazi zitzaizkion, bere kurrinka xarmagarria kurrunka sendo eta lehor bat bihurtu zen, eta hamar kiloko basurdetxo izatetik, berrogei kiloko basoko urdetzarra bihurtu zen, urde baten itxura eta usainarekin. Eta goiz batean, eme zaharrenari burua joan zitzaion, eta aurretik ezer esan gabe pikutara bidali zituen bera eta anaiak. Rikardok, noski, ez zuen taldetik joan nahi izan; behin baino gehiagotan saiatu zen berriro taldera sartzen, harik eta, berebiziko abileziarekin, ezkerreko barrabilean hozkada egin zion arte.... Mezua argi geratu zitzaion Rikardori.

Eta hantxe hasi zen Rikardoren nerabezaroa. Nerabe guztien modura astea ezkurak jaten ematen zuen, eta larunbat gaua iristean, erreka alboan litroka ur edan, beste litroka txiza egin eta basoko zokorik sakonenera joaten zen bere anaiekin eme talde baten bila. Baina Rikardo ez zen bere anaiak bezain ausarta, eta basurde eme talde bat gerturatzen bazen, erreka ertzean geratzen zen ura edaten, tarteka muturra gora eta

behera astinduz eta eme taldeari zeharka begiratu. Igande goiza Rikardok ur gehiegi edan osteko ajea pasatzen ematen zuen basoko zoko batean etzanda, larunbat gauean edan zuen ur mota ez ote zen garbiena pentsatuz.

Irailako igande goiz batean, ordea, basoa erabat isilik zegoen, ez zen zirkinik entzuten, eta Rikardok lepo atzetik bizkarraldera zirrara berezi bat sentitu zuen. Bat-batean, zarata ikaragarri bat entzun zuen bere atzean, eta senak bultzatuta sasi artetik harrapazka abiatu zen lasterka. Bat-batean tiro soinu bat bere eskuinean, burua jiratu eta burdinezko sudurluzea zuen animalia arraro bat ikusi zuen, ostean iluntasuna.

«Eman diok, Joxe Manuel! Txiki xamarra, gaztea». Eta Joxe Manuelek Rikardo ganean hartu zuen, bere *toterrenora* igo, harategira eraman eta Rikardoren haragi guztiarekin kiloka txorizo egin zituzten, Joxe Manuelek txorizo guzti horiek aurreko bi urtetako txorizo kiloekin batera bere izozkailu erraldoian sartu zituen... Ea aurten behintzat baten bat topatzen duen basurde txistorra oparitzeko. Gauean Joxe Manuelek, Gipuzkoako basoen kudeatzaile eta faunaren erregulatzaile afizionatuak, gazte denborako larunbat gauekin amets egin zuen.

Lanbide Heziketa Merkataritza Euskaraz

Zure bidea, gure
konpromisoa

Gertu Zaude? Gertu Gaudel



26
Martxoak 26
15:00
19:00

23
Apirilak 23
15:00
19:00

16
Maiatzak 16
09:30
13:30

Ate Irekiak

Erreserbatu hitzordua webgunean
www.elizaran.eus

elizaran

Fp



saridunak

Atarikideentzat **2 sarrera bikoitz** ditugu

Batbatean

musika jaialdirako
bi egunetarako bi sarrera bikoitz



- Eli Moreno (Tolosa)
- Eneko Garmendia (Baliarrain)

Maiatzak 15 eta 16 · Mendizabala parkea · Gasteiz
www.batbatean.eus



Sariak eskuratzeko **ataria** jarriko da zuekin harremanetan.

ataria

Iragarri zurea gurean

publi@ataria.eus / 661 678 818



ANE ZUBIA
HARITUZ-EKO KIDEA

Uda hurbiltzen

Doinua Baneza eta banitu

Egutegira begira
bi hiltbeteen kupida
Pozari eman segida
Uda hurbiltzen ari da
Baldin bazaude bueltatu nahian
zure etxera, herrira
Baldin bazaude nekeak jota,
lan kargari ezin tira
Amets gaiztoei norberak eman
behar diegunez bira
Beroarekin munstro guztiak
azalean urtzen dira.



BIDEOA

Artea

Asier Imaz

Kutxak, Gorputzak eta Altxorrak erakusketaren inaugurazioan Uxue Lasak bere lanaren berri eman zion ATARIARI. Ekainaren 28ra arte dago Lasaren lana ikusteko aukera.



PERTSONAIA HISTORIKOAK



Historia

Joxemi Saizar

Estanislao Urruzola Bitoria *Uxolaren* inguruan hitz egin du Joxemi Saizarrek pertsonaia historikoen atalean. *Eusko gudariak* abestiaren letraren egilea gogora ekarri du saioan.



TELESAILAK ETA ZINEMA

Ikus-entzunezkoak

Alain Rekondo

Euskal Herrian sortu nahi duten zinema akademia, Maialen Belokiren izendapena Donostiako Zinemaldiko zuzendari karguan eta hainbat pelikula gomendio.



Baloi baten ertzak



**ONINTZA
LASARTEAGA
TOLOSARRA**

Kirolzalea naiz, eta nire ohituretan erabat txertatua daukat. Hortaz gain, ikuslegisa ere gustura sentitzen naiz.

Kirolen balioen eta ondorio baikorren inguruko hitzaldi sutsurik egiteko asmorik gabe, bat egiten dut, oro har, ongizate psikologikoan, fisikoan eta emozionalan aldeko eragina duela defendatzen duten teoriekin (oinarri zientifikoek babestuta).

Beste jariko ezpala da, ordea, alde batetik hainbat kirolek mugiarazten dituzten diru kopuru, botere harreman eta xirimiri bailitzan gizar-teak barneratzen dituen zenbait balio. Maiz, belarriak gozatu asmoz zabalduetako mezuetatik urrun (elkartasuna, talde-sentimendua, etab.), gehiago ikusten edo ikustarazten dira kirolari batzuk izar edo *estralurtar* moduan.

Bestelako funtzioa ere onartu behar zaio; gizar-te kohesiorako ardatz garrantzitsua izatearena, esaterako. Adin, klase sozial, ideologia politiko eta bizi-testuinguru ezberdinak izanik ere, guztiei emozio berberak pizten dizkie futbol taldeko ikurrinen astinduek edo ereserkiak entzuteak.

Duela gutxi sentimendu horiek mugiarazten dituzten *indar, energia eta ilusioen* lekuko izan gara.

Ez dira aste asko pasatu *indar, energia eta ilusio* bera nonahi zabaltzen zuen eta jendarte ezberdinen topagune bilakatu den Korrika igaroz zenetik. Bi mila kilometro pasatxoko ibilbidean milaka pertsonak bat egin zuten hizkuntza beraren gerizpean.

Bi kasuetan, plazak gainezka eta festa-giroa nagusi!

Baloia esferikoa izanik ere, ertz ezberdinetatik eratorritako gogoetak egiteko parada eman dit Sevillan jokaturako partidak, eta, batez ere, ondorengoak.

«Milaka pertsonak bat egin zuten hizkuntza beraren gerizpean»

Herrialdeen arabera, jarraitzaile gehien dituzten kirolak ezberdinak izan ohi dira, baina inguruan futbola da nagusi.

Egiten den oro eta esaten den guztiak berebiziko oihartzuna izan dezake, eta halaxe dauka. Benetan, lobby edo eragin-talde itzela dela ezin uka daiteke. Txapelketa eta partida entzute-tuetan ohorezko eserlekuetako argazkiak horren lekuko nabarmenak direla pentsatzen dut. Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du.

Korrikako jende-oldeak oraindik buruan, pozgarria izan zen milaka zaleen aurrean, jende askorentzat eredu den atzerriko entrenatzaileak, bere hitzaldia osorik euskaraz egin zuela ikustea.

Gurean euskararen erabilerak oraindik ere aurrera egiteko bidea duen arren, honelako jokaldiak errepikatzen badira —hobe esanda, errepikatzen baditugu—, *txapeladun* izatetik gero eta gertuago egongo gara.



IKASLEEN AHOTAN



Teknologia

Andoni Arrocha eta Igor Gonzalez. Tolosaldea LHII.

Dibertsioa ala iruzurra? Trukoen bilakaera bideojokoan munduan

Bideojokoetako trukoei buruzko hausnarketa dakarkigu, eta dibertsioaren eta iruzurraren arteko muga non dagoen aztertuko dugu. Lehenik, komeni da bereiztea joko barruko truko klasiakoak eta online jokoetako iruzurrak ez direla gauza bera.

Garai bateko jokoetan, hala nola *Grand Theft Auto: San Andreas* edo *The Sims*, kodeak erabiltzea ohikoa eta onartua zen. Bizitza infinitua, diru mugagabea edo ibilgailu bereziak lortzea dibertsio hutsa zen, eta ez zion inori kalterik egiten. Izan ere, jokalaria bakarka aritzen ziren, istorio moduan edo offline. Gainera, truko asko garatzaileek beraiek sortutako tresnak ziren, jokia probatzeko.

Online joko kompetitiboetan, ordea, egoera erabat aldatzen da. *Fortnite*, *Valorant* edo *League of Legends* bezalako jokoetan iruzurrak erabiltzeak beste jokalarien esperientzia kaltetzen du, lehia desorekatzen du eta komunitatea ahultzen du. Horri aurre egiteko, enpresek trukoen aurkako sistemak garatu dituzte, hala nola Vanguard edo Easy Anti-Cheat. Hala ere, sistema horiek eztabaida ere sortu dute, pribatutasunean eta errendimenduan izan dezaketen eraginagatik.

Azkenik, galdera nagusia da zergatik jotzen duten jokalariek iruzurrera. Arrazoiak askotarikoak izan daitezke: frustrazioa, erraz irabazteko nahia edo besteak probatzeko gogoia. Ondorioak, ordea, argiak dira: kontuak etetea eta komunitatearen gaitzespena.

Ondorio gisa, uste dugu istorio moduan jokatzeko edo offline trukoen erabiltzea zilegi izan daitekeela (adibidez, *The Elder Scrolls V: Skyrim* jokoan kontsola-komandoak erabiliz). Online joko kompetitiboetan, berriz, iruzurra egitea ez da onargarria. Gainera, badirudi gaur egungo jokoetan trukoen kultura desagertzen ari dela, askotan desblokeagarriek edo mikrotransakzioek ordezkaturak.

AGENDA

OSTIRALA MAIATZAK 8

ALEGIA

KALE IKUSKIZUNA

19:00. *Azkena eta bagoaz*,
Trapu Zaharra taldearena.
Plazan.

HERRIARTEKOA

19:45. Herriartekoa paleta
gomaz. Alegia vs Eibar.
Alex Sanchez, Gorka Altuna,
Unai Altuna eta Haritz Zabala.
Elorri pilotalekuan.

AMASA-VILLABONA

HERRIARTEKOA

19:30. Villabona vs. Donostia,
herri pilotalekuan.

KONTZERTUA

22:30. Zetkin eta
Penadas por la ley.
Aljibean.

AMEZKETA

UDABERRIKO

AZOKA BEREZIA

16:30-18:00. Elikalurren
eskutita. Malek fruta saltzailea,
Larreta esnekiak, Eguzkileire,
Aralareko, Zuzitza, Balardipeco
eta baserriko arrautzak, Zazpi
Itturri elkarte, Osabi kosmetika
naturala, Zidernaut edariak,
sunpriñu tailerra eta zozketa.
Plazan.

ANOETA

KONTZERTUAK

22:30. Stay firm eta Aingura
taldeen kontzertuak, AGAK
antolatuta. Gaztetxean.

ASTEASU

EMAKUMEEN ELKARGUNEA

17:00-19:00. Asteasuko
emakumeak elkartzeko gune
atsegina: mahai-jolasak,
eskulanak, kafea eta pastak.
Kultur etxean.



KIROL ASTEA

17:30-19:00. Parkean.
Halterofilia. Danok Danenaren
gaztetxoan altxaldi saioa.

IBARRA

KULTUR ASTEA

Ibarrako gazte asanbladak
antolatuta.
17:30. Talo ikastaroa, plazan.
23:00. The Hastelens,
gaztetxean.
DANTZA EMANALDIA
20:00. 30. urteurrenari omen
eginez dantza emanaldi berezia
eskainiko du Alurr dantza
taldeak: gaur egun dantzariak
diren eta garai batean izan
zirenek, zuzeneko musikarekin
batera. Sarrera doakoa izango
da. Belabietan. **Irakurri
erreportajea 10-17 orrietan.*
URTEURRENA
Gaztezuloren 10. urteurrena.
Alurr dantza taldearekin batera
dantza emanaldia.

IKAZTEGIETA

TRIKITIXA

18:30. Bikta taldea. Ostatuan.

TOLOSA

ATE IREKIAK

17:00. 15 minutuko klaseak
Isidro Larrañaga musika
eskolan.

GAZTE TOPAGUNEA

17:00-20:00. Treba nerabeak:
ongizate emozionala. Gazte
Topagunean.

BERTAKO HARAGIEN AZOKA

18:00-00:00. Zumarditxikia:
Foodtruckak eta kontzertuak.
19:00. Eider.

21:30. Bisai.

23:00. DJ Obrium.

BISITA GIDATUA

*Oroimena borrokan eraiki. Gerra
garaia eta frankismoa Tolosan.*
Argazki erakusketa, 3 tabernan.

18:00. Bisita gidatua.

19:00. Pintxatze antifaxista.

AMALUR JARDUNALDIAK

19:00. *Zer izan nahi duzu
handitan? Pere Estupinyá.*
Topic-en, gaztelaniaz. Bizitza
luzearen benetako iraultza ez
da osasuna, baizik eta zaharrek
beren burua ikusteko duten
modua. Eta horrek hirugarren
adin ikusgarri bat bizitzeko

aukera ematen du, jardueraz, kezkaz, gogobetetasunez eta gizarte-konpromisoz betea. Horretarako prestatu egin behar dugu geure burua, geure buruari galdetuz: «Zer izan nahi dut handitan?» eta bizitza berri horren benetako gakoei erreparatuz —bizitza osasungarria, baina baita finantzak, ingurune soziala eta hazkunde pertsonala ere—.

KONTZERTUA

20:00. Musikene Big Band. Donostiako Musikene goi mailako musika zentroko ikasleek osatutako musika taldea da, jazz estiloko ikasleek osatutakoa. Ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute. Leidorren.

IKUSKIZUNA

20:00. Argentinako Celeste Abbaren *Rumbo animal*. Helduentzat, gaztelaniaz. Intujai espazioan.

HERRIARTEKOA

21:00. Zumarraga vs. Tolosa. Beotibar pilotalekuan.

LARUNBATA

MAIATZAK 9

ABALTZISKETA

LASTERKETA

10:00. Txindokiko Kilometro Bertikala.

ALTZO

ALTZO BIHAR

HERRI GOGOETA

10:30-13:30. Herriko eragileen arteko elkarlana etorkizunera begira aztertuko dute. Batzarremuñon.

10:30. Sarrera eta lan-dinamikaren aurkezpena.

10:45. Lehen lan saioa.

11:45. Atsedena.

12:15. Bigarren lan saioa.

13:15. Ondorio orokorrak.



AMASA-VILLABONA

KONTZERTUA

12:00. Go!azen-eko kantak Eresargi gazte kideekin. Gurean.

ONDDOREN

29. URTEURRENA

14:30. Bazkaria.

Bingoa eta mojitoak.

22:30. Kontzertuak.

Suteka eta Diraki.

ANOETA

TXAPELKETA

16:00. 3x3 basket txapelketa, AGAK antolatuta. Parke txikiko saskibalo kantxan.

ASTEASU

GAZTE EGUNA

11:00. Ume olinpiadak.

12:00. Gazte olinpiadak plazan.

14:30. Bazkaria.





Ondoren. Bingo musikatua.
18:00. Elektrotxaranga:
 Kitadelpare.
23:00. DJ Lizarrusti.

IBARRA

KULTUR ASTEA

Ibarrako gazte asanbladak antolatuta.
11:00. Artisau azoka plazan.
21:30. Bertsoa afaria, plazan.
 Andoni Rekondo,
 Danel Etxeberria,
 Janire Arrizabalaga,
 Mikel Iturrioz eta
 June Aiestaran.

00:30. Karaokea eta
 DJ Mondondo, gaztetxean.

DANTZARI TXIKI

10:30. Dantzari Txiki.
 Euskal Herriko dantzari eta
 dantza taldeen konpainiarekin:
 Arrasate, Oñati, Bera eta
 Anoeta.
12:00. Emanaldia plazan.
Eguerdian. Bazkaria.
16:00. Ttipikaren doinupean
 dantzialdia.

LARRAUL

KIROL ASTEA

10:30-12:30. Parkean. Xakea.
 David Parronekin xake-partidak
 aldi berean.

AGENDA

TOLOSA

BERTAKO HARAGIEN AZOKA

09:00-14:00. Trianguloa plaza:
 bertako haragi ekoizleen azoka
 eta dastaketak. Azoka berezia bi
 posturen parte hartzearekin: Li-
 zartzako Ueta etxaldea —txekor
 haragia eta Amezketako Ara-
 lar'eko —moxal haragia—. Txo-
 min Parrilaren eskutik erreketa
 izango dira, eta 11:00etatik au-
 rrrera pintxo eran jan ahal izango
 dira arkumea burruntzian eta
 zikiroan, behi-pikaña, saiheskia
 eta txuleta-txorizoa.

09:30-13:30. Trianguloa plaza:
 Haragi gisatuaren lehiaketa.
 Haur batek eta heldu batek
 osatutako bikoteentzat.

09:15. Elkartu, lana egingo
 duten tokian jarri eta materiala
 jaso.

09:30. Lehiaketaren hasiera.
 Osagaiak erostera joango dira
 azokara.

10:00-12:00. Haragi-gisatua
 kozinatzeke denbora.

12:30. Epaimahaiaren
 dastaketaren hasiera.

13:30. Sari banaketa.

12:00-00:00. Zumarditxikia:
 foodtruckak eta kontzertuak.

13:00. Marabiyak, Trianguloan
 hasita.

19:00. Argazki bat behelainoan.

21:30. Jo&Swissknife.

23:00. La Jamba.

TAILERRA

10:30. Anbigutarrak. Uxue
 Lasaren *Kutxak, gorputzak
 eta altxorrak* erakusketan
 oinarritutako tailerra, familiei
 zuzendurik. Topic-en.

AUTOBUSA

15:30. Bilboko *Euskaraz
 bizitzeko eta lan egiteko
 eskubidearen alde*
 manifestaziorako autobusa
 Galtzaundik antolatuta.
 Santa Klaratik.

KONTZERTUA

22:00. Ripskip (Zeelanda
 Berria). Bonberenean.

ERAKUSKETAK



UXUE LASA. KUTXAK,

GORPUTZAK ETA

ALTXORRAK

Begiak, likenak, loreak,
 harriak, hezurak, animaliak,
 gorputzak, bizitza,
 heriotza... azken finean,
 natura arte bilakatuta.



OROI MENA

BORROKAN ERAIKI

'Oroimena borrokan eraiki.
 Gerra garaia eta frankismoa
 Tolosan'. Argazki
 erakusketa.

Tolosa, 3 taberna.



HARI EZKUTUA

Mariano Arsuagaren 'Hari
 ezkutua' erakusketa.

Tolosa, Aranburu jauregia.

AGENDA

ZIZURKIL

ZIZURKILGO BIATLOIA

10:30. Izena ematea.

11:00. 2-12 urte bitarteko umeentzat. Pello Mari Otaño plazatik.

Ondoren. Hamaiketako parte hartzaileentzat.

IGANDEA

MAIATZAK 10

ALEGIA

HERRIARTEKOA

10:30. Herriarteko txapelketa. Alegia-Aretxabaleta. Elorri pilotalekuan.

AMASA-VILLABONA

DANTZA IKUSKIZUNA

17:00. Lasaka konpainiaren *Alai familian*. Hodei Arrastoaren testuarekin. 4 euro. Gurean.

HERNIALDE

KULTUR EGUNA

10:30. *Kutsidazu bidea*, Ixabel horma-irudiaren inaugurazioa frontoian.

10:30 - 14:00. II. Artisau Azoka, musikaz girotua goizean zehar.

14:30. Bazkari herrikoia. Tiketak udal-etxean edo ostatuan salgai, maiatzaren 5era arte. Helduak 20 euro. Haurrak 13 euro.

Ondoren. Toka txapelketa.

15:30. Haurrentzako puzgarriak.

17:00. Txokolatada.

18:30. *Haurreskolari* Tio Teronen Semeak taldearen ikuskizuna frontoian.

IBARRA

LASTERKETA

10:00. Zazpibide Trail, Bidetxur mendi elkarteak antolatuta. 15,5 kilometro. + 653 metroko desnibela.

KULTUR ASTEA

Ibarrako gazte asanbladak antolatuta.

18:30. H.ondora, gaztetxean.

LARRAUL

KIROL ASTEA

10:30-11:30. Parkean.

Arte martzialak, Txurun Lopezekin haur eta helduentzat.

12:00-13:00. Plazan. Toka.

Parte hartze librea.

TOLOSA

BIODIBERTSITATE GUNEA

Orexara irteera.

MENDI IRTEERA

07:00. Alpino Uzturreren mendi irteera. Cubilla de la Sierra - Pancorbo. 18 kilometro eta 6 ordu eta erdiko ibilbidea. San Frantsizkotik.

TXIRRITA 50 URTE

Txirritaren heriotzaren 50. urteurrena. Etxalarrera ibilaldia egingo dute desagerpene-ko lekuko batekin eta kasua ikertu duen Ander Lizarralde filologoarekin.

08:30. Tolosako Usabal kiroldegitik abiatu.

12:00. Omenaldia Lizarrietako Gainan.

14:30. Bazkaria Oargi mendi elkartearen.



BERTAKO HARAGIEN AZOKA

12.00-16.00. Zumarditxikia: foodtruckak eta kontzertuak.

13:00. Les Cuisiniers.

5. MAIATZEKO DOINUAK

12:00. Musikeneko Interpretazio Masterreko ikasleen kontzertuak. Musikene Low Brass Ensemble. Tronpeta, bonbardinoa, tronboi baxua eta tuba. Topic-en.

IKUSKIZUNA

17:00. Maria Arandiaren *Mariaren magia-kutxa*.

Artista gonbidatua: Aiara magoa. Intujai espazioan.





PILOTA

17:15. Buruz buruko txapelketa. Artola vs. Zabala. Final laurdenak. Beotibar pilotalekuan.

KONTZERTUA

18:00. Hit Bound taldearen kontzertua. 2022an jaio zen, Donostia, Azpeitia eta Azkoitiko reggaezaleen elkarlanaren emaitza gisa. Proiektu honetan, 12 Tribu, Tacuma, Agoteak eta Ukabil talde ezagunetako musikariek parte hartzen dute, eta estilo eta esperientzia ezberdinak uztartzen dituzte.



AGENDA

Taldeak reggae instrumentala lantzen du, eta haize-sekzio indartsu batek bizitasun eta energia bereziak gehitzen dizkio bere interpretazioei. Haien errepertorioa kanta propioez eta Jamaikako talde ikonikoen bertsio hautatuez osatuta dago, reggaearen tradizio aberatsari omenaldi eginez. 3 tabernan.

TOLOSALDEA

AUTOBUSA

HERRI URRATSERA

09:00. Ikaztegieta.

Kiroldegiko geltokia.

09:05. Alegia.

Bideberrietako geltokia.

09:10. Tolosa.

Santa Klarako geltokia.

09:15. Anoeta.

Apaetxe baserria.

09:20. Irura. Ikastola parean.

09:25. Villabona.

Kale berria 8ko geltokia.

BIZILAGUNAK

Bizilagunak ekimenaren bazkariak izango dira Euskal Herriko etxeetan eta parkeetan.

ASTELEHENA MAIATZAK 11

ALEGIA

LIBURUTEGIA TOPAGUNE

16:30. Eko jolasak tailerra.

Bulebarrean.

IKAZTEGIETA

IRAKURLE TALDEA

18:30. Itziar Ugarteren

Gu gabe ere liburua aztertuko dute. Idazlea egongo da saioan. Liburutegian.

TOLOSA

HITZORDUA

08:30-14:06. NAN eta pasaporte berritzeko aukera. Aurrez hitzordua hartu beharko da:

<https://izenematea.tolosa.eus>.

ZINEMA



INCONTROLABLE

Larunbata eta astelehena
(19:00).


Tolosa, Leidor.



EL DIABLO VISTE DE PRADA 2

Larunbata (21:45) eta
igandea (19:30).

Tolosa, Leidor.




DAVID.

UNA AVENTURA GIGANTE

igandea (17:00).

Tolosa, Leidor.



KRAKEN: EL LIBRO NEGRO DE LAS HORAS

Larunbata (19:30 eta
22:00), igandea (22:00) eta
astelehena (19:30).

Amasa-Villabona, Gurea.

KAKARI BURUZ LASAI HITZ EGIN DAITEKE

Ezkutatzen dugun horren guztiaren azaleratze-festa da 'Kaka', Erika Olaizolak eta Xanti Agirrezabalak sortu eta zuzendutako umorezko antzezlan. Biak ere, aktore dira obran, Ainhoa Aierbe eta Iñigo Aranbarrarekin batera. Hilaren 16an Tolosako Leidorren egingo dute.

Josu Artutxa Dorronsoro

Kaka-mokordo bat herriko plazan. Mendeak dira munduan kakarik ez dagoela; gizakiek ipurdia izan baduten arren ipurtzuloa falta baitzaie. Baina mokordoa agertu da Ipurtegietan, eta misterioa argitu beharko da. Erika Olaizola eta Xanti Agirrezabala azpeitiarrek sortu zuten *Kaka* antzezlan, iaz AEK-Korrikako II. Kultur Sorkuntza Beka irabazi zuten, eta 24. Korrikaren ekitaldi kultural nagusia izan da, eta oraindik ere izaten ari da. Maiatzaren 16an, larunbatean, Tolosako Leidor aretoan egingo dute, 20:00etan.

Arina eta freskoa da *Kaka*; ia ordu eta erdiko iraupena du, eta Olaizolarekin eta Agirrezabarekin batera, Ainhoa Aierbe eta Iñigo Aranbarrri —Mikel Laskurainen ordeztu ari da— igoko dira Leidorreko oholtzara. Olaizolak nabarmendu du «maitasun handiz» sortutako antzezlan dela. «Komedia bat da, baina badu thriller puntu bat ere, kaka-mokordo bati buruzko ikerketa bat dagoelako, kaka existitzen ez den leku batean, gainera. Nola liteke? Nork egin du?». Galdera horiei tiraka sortu zuten istorioa.

Olaizolak aitortu du askok galdetu dietela ea nola den posible horrelako ideia batetik antzezlan bat sortzea. Bada, 15 urte inguru egin behar da atzera jatorria ezagutzeko. Garai hartan, Ane Arinas lagun minarekin batera, pieza motzak sortzen zituen azpeitiarrek. Euskal Herrian batera eta bestera aritzen ziren ordu laurdeneko antzezlan laburrak egiten. «Orduan sortu zitzaigun kaka-mokordoaren ideia, baina ez zuen aurrera egin, eta ideia kutxa batean gordeta geratu zen».

AEK-Korrikako beka deialdia zabaldu zutenean, garai bateko ideia berreskuratzea pentsatu zuen Olaizolak. Agirrezabalarekin partekatu zuen, eta aproposa iruditu zitzaion. «Sentitu genuen momentua zela, iraganeko ideia hori berrartu eta forma emateko. Askok inspiratzen gintuen irudiak berak, literalki eta metaforikoki, eta bide berri bat ireki zitzaigun. Galdera asko genituen, eta ohartu ginen euskaraz ere baditugula kakarekin lotutako esamolde, espresio eta esaerak. Esplorazio-lan handia egin genuen, eta ohartu ginen ez genbiltzala hain urruti; jolaserako aukera mordoa topatu genituen».



Gerora, beka irabazi zuen azpeitiarren proiektuak, eta horrek bide eman die antzezlanak ekonomikoki bultzatu eta Euskal Herrian barrena egiteko; dagoeneko 30 emanaldi inguru egin dituzte. «Bi urte pasatu ziren proiektua aurkeztu genuenetik obra estreinatu genuen arte. Lan handia egin genuen ekoizpenean, baina merezi izan zuten. Oso pozik gaude, helburua lortu genuelako, eta lantalde zoragarri batekin lan egiteko aukera izaten ari garelako».

Zenbait fantasia beteta

Antezlan bat baino gehiagotan elkarrekin arituak dira Olaizola eta Agirrezabala, baina Erika eta Xanti izenpean gidatzen ari diren lehen obra da *Kaka*. «Ez genion buelta handirik eman izenaren kontuari, antzezlanak bera zelako aitzakia izen bat jartzeko. Xantik dioen moduan, Alaitz eta Mainer bezala gara», esan du barre artean Olaizolak. Aktore izateaz gain, antzezlanak zuzentzea lan handia den galdetuta, azpeitiarrak esan du «ohi-

tuta» dagoela; besteak beste, Kamikaz kolektiboa konpainiako arduradunetako bat da. «Guk idatzi eta zuzentzen ditugu gure proiektuak».

Hala ere, *Kaka* posible egiteko, lantalde handi baten laguntza izan dute, eta Olaizolak aitortu du «beste fantasia batzuk» bete dituztela: «Esaterako, Kepa Errastirekin partekatu genuen gidoiaren idazketa, eta eszenografia Ikerne Gimenezek egin du. Lehen aldiz aritu gara eszenografo batekin elkarlanean. Ondorioz, lana potoloagoa izan da, baina aldi berean, polita, bai artistikoki, baita maila pertsonalean ere, eta asko gozatu dugu». Entseguz entsegu lagun izan duten Espe Lopez ezzena zuzendariaren lana ere goraiatu du Erikak.

Aktore azpeitiarrak nabarmendu du antzezlanaren gidoia lantzeko prozesuan Errastiren eskua «ezinbestekoa» izan dela. «Oso gustura aritu gara lanean. Guk ideia azaldu genion, eta berak lehen bertsioa egin zigun, egitura guztiarekin; oso lagungarria izan zen guretzat. Gero, Xantik eta biok esaldiak aldatzen hasi ginen, eta Keparekin adosten, nahiz eta gaur egun egiten duguna lehen bertsio haren oso antzekoa izan. Konfiantza handia dugu elkarrengan, eta asko maite dugu elkar, baina uste dut Kepak kokoteraino amaitu zuela gurekin, akaso, oso perfekzionistak garelako».

Perfekzionismoa euskarara ere eramanez nahi izan dute azpeitiarrek. Olaizolak esan du «kontzientzia-lan handia eta apustu berezia» egin dutela euskaraz umorea egiteko. «Hausnarketa sakon batean murgilduta gaude. Ikusi izan ditugun euskarazko zenbait antzezlanetan, erdarazko esamolde umoretsu asko entzun izan ditugu, erdal egitura eta espresioak, alegia». Aktoreak aitortu du «oso purista» jarri direla, eta esaldiak euskara garbian idatzi dituztela. «Obsesio-puntu bat ere izan dugu zenbait unetan».

Izan ere, azpeitiarrek sarri entzun izan dute umoreak euskara batuan ez duela funtzionatzen, euskalkia beharrezkoa dela. Bada, haiek euskara batuan egin dute, eta Olaizolaren iritziz,

«Fantasia bat izan da antzezlanaren euskara batuan egitea»
ERIKA OLAIZOLA



«harro» sentitzeko modukoa da. «Beste fantasia bat izan da. Obsesio handiko pertsonak gara, eta euskararekin hori lortu nahi genuen. Gai gara esaldi bakarrari orduak eta orduak eskaintzeko. Zenbait krisi ere izan ditugu, euskararen paranoian sartzen zarenean, gogorra baita kontua, eta askotan egin diogu elkarri 'Hau zuzena da?' galdera».

Eta kaka-mokordo baten inguruan, fantasiarako momentua topatzen duen izakirik bada, hori eulia da. Antzezlanean ere badu bere tokia, eta kontalari modura agertzen da, bertsotan. «Gidoia idatzi aurretik argi genuen euliak izango zirela oholtzan, baina oraindik ez genekien zer modutara, eta bertsoaren edo raparen bitartez izan zitekeela ere pentsatu genuen; intuizio hori genuen». Halako batean, Liki Likatsu musika taldea deskribitu zuten. «Lehen begi-kolpeko maitasuna izan zen. Oso zirikatzaileak dira, jolastiak. Bete-beteen asmatu genuen». Azkenean, antzezlaneko musika guztia sortu dute, eta presente egon dira sormen prozesuan. «Elkarlana oso artisaua izan da».

Umoreak taburik ez

Gaia edozein dela ere, antzezlan baten gidoia umorearen bidetik egiteak baditu hainbat zailtasun. Azpeitiarren obraren kasuan, kakari buruz umorea erabiliz idaztea betiko bideari jarraipena ematea izan da. «Azken urteetan, umoretik ari gara



lantzen gure sorkuntzak. Bizitzan ere tendentzia hori daukagu; gaitasun handia dugu umorerako, gure miseriei buelta bat eman eta beste ikuspegi batetik begiratzeko. Gu halakoak izateak lagundu du gidoia idazterakoan».

Euskal kulturaren oholtzan kaka-mokordo bat agertu da. Hala dio antzezlanaren azalpeneko lehen esaldiak. Aldarrikapenen bat egitearekin lotura ote duen galdetuta, Olaizolak erantzun du ez direla bandera batekin jarri, zerbait eskatu nahi dutela esateko; ez dituela horrek mugitu. «Irudi batetik abiatu ginen antzezlanaren egiteko, eta nahia ez da gauza konkretu bati buruz hitz egitea. Zirikatzailak diren egoera edo esanak daude antzezlanean, baina hortik aurrera ikusleari uzten diogu konektatzen; ikusitakoarekin, erabaki dezala zer kontsideratzen duen bere kaka eta zer gurea. Istorio honetan bada norbanako baten kaka-mokordoa, baina baita herri batena ere».

Ezkutatzen dugun horren guztiaren azalera-tze-festa da *Kaka*. Izan ere, gizartean, oro har, kaka-kari buruz hitz egitea tabu edo ezkutatzeari-ri-ri bilakatu da. Horrek atentzioa eman zien azpeitiarrei. «Guztiok egiten dugun zerbait da, eta aldi berean, osasungarria, baina lotsa edo beldurra ematen digu horri buruz hitz egiteak, ez bakarka bakarrik, baita kolektiboki ere. Guk ez ikusteak ez du esan nahi

«Istorio honetan bada norbanako baten kaka-mokordoa, baina baita herri batena ere»

ERIKA OLAIZOLA

existitzen ez denik, eta nahikoa da kaka-mokordo bat agertzea azalera-tze-festa hasteko».

Guztiak batzen ditu

Orain arte, Euskal Herriko bost lurraldetan egin dituzte saioak. «Herri asko bisitatu ditugu, horietako batzuk lehen aldiz, eta oso polita izan da euskarazko obra batekin Tuterara edo Zangozara joatea». Olaizolak gaineratu du harrera oso ona izan duela antzezlanak, funtzionatu duela, alegia. «Asmatu dugu zer eta nola kontatu. Denok egiten dugun zerbait da kaka; beraz, berdin du Senperen, Balmasedan edo Tuteran egon, batasun bat dagoelako». Ziur dago berehala konektatu dutela han eta hemen. «Guk asko gozatzen dugu, eta uste dut, oro har, ikusleak ere asko gozatu duela».

Maiatzaren 16an Tolosara joaterik ez duenak, igande honetan izango du antzezlanaren ikusteko aukera, Pasaian. Udaberriaren egingo dituzten azken bi emanaldiak izango dira. Azaroaren 19an egin zuten lehen emanaldia, apirilean ez dute bat bera ere egin, eta Tolosakoa 30.a izango da. «Bira ederra izaten ari da, ia astebururo ari gara *Kaka* egin eta egin, eta orain, hilabeteko etenaren ondoren, gogotsu gaude berriro oholtza gainera igotzeko. Ea ez gaituen kaka eginda harrapatzen». Udazkenerako emanaldi gehiago lotzen ari dira. «Tarteka egingo ditugu, hilabetean bat, edo asko jota, bi. 40 egitera heltzen bagara, sekulako lorpena izango litzateke».

Antzezlanaren izenak sortu dezake nolabaiteko zalantza publikoan, eta batek baino gehiagok pentsatu dezake ez dela haurrentzako antzezlan bat. «Berez, 14-16 urtetik gorakoentzako ikuslari zuna da, edo hala pentsatuta prestatu genuen

hasieratik. Hala ere, haur ugari joan da gure emanaldiak ikustera, eta oso gustura egon dira denak, haien saltsan. Guztiok batzen gaituen zerbait da kaka, eta inor ez da baztertua sentitzen hari buruz hitz egitean».

EGURALDIA



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

OSTIRALA Hodei askorekin hasiko da eguna. Erdi eta goi-mailako hodeiak izango dira, baina hodei hauek han-hemenka zaparradaren bat edo beste utziko dute. Hala ere, ez da euri askorik espero. Arratsaldean, aldiz, bero-hodeiak garatuko dira eta ekaitzetara joko du. Ekaitzak ez dira oso ugariak izango, baina lehertzen duen lekuetan handi xamarrak izan daitezke. Haizeak hegotik joko du. Epeldu egingo du, eta 20-22 gradu harrapatuko ditugu.

LARUNBATA Giro atseginarekin hasiko da eguna. Nahiz eta, behe-laino pixka bat eta erdi eta goi-mailako hodei batzuk agertu zeruan, giro ateri eta argia nagusituko da. Arratsaldean, ordea, egoera ezegonkortu egingo da. Bero-hodeiak garatu eta ekaitzetara joko du. Ekaitzak ez dira ugariak izango, baina han-hemenka mardul botako du. Gauean atertzera egingo du. Hego-haizea bizi ibiliko da. Tenperaturak antzeko jarraituko du, eta 20-22 gradu harrapatuko ditugu.

IGANDEA Hodeiak eta ostarteak tartekatuta hasiko da eguna, baina ostarteak nagusi izango dira, eta giroa ederra eta atsegina izango da. Arratsaldean berriro ere bero-hodeiak garatuko dira, eta ez da baztertu behar azken orduan ekaitzen bat lehertzea. Hala ere, ekaitz bakanak izango dira, eta giroa lasaiagoa izango da. Hego-haizeak jotzen jarraituko du, gehiago berotuko du, eta 21-23 gradu harrapatuko ditugu.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa Atariako bulegotik: **San Esteban 20 behea · Tolosa**

FARMAZIAK

MAIATZAK 8, OSTIRALA

IBARRA.

Egunekoa.

Edurne Mujika Martinez.

Euskal Herria 3.

943 67 09 15.

MAIATZAK 9, LARUNBATA

TOLOSA.

Egunekoa.

Leire Andres Morant.

Zabalarreta lorategiak 1.

943 67 38 49.

MAIATZAK 10, IGANDEA

TOLOSA.

Egunekoa.

Oskar Etxebeste Etxarri.

Gernikako Arbolaren lorategiak 3.

943 65 10 40.

MAIATZAK 11, ASTELEHENA

AMASA-VILLABONA.

Egunekoa.

Juana Maria Sanchez Alias.

Kale Berria 34.

943 69 11 30.

EGUNERO **GAUEKO**

GUARDIAKO FARMAZIA:

TOLOSA.

Edurne Bengoetxea Aiestaran.

Kale Nagusia 7.

943 67 06 48.

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez
943 65 56 95 · ataria@ataria.eus · San Esteban 20 · TOLOSA

ZORION AGURRAK

ZORION AGURRAK



Zorionak Manex!

Manex Castro Zabaleta (Amasa-Villabona).

Zorionak atzoko partez! Ez gaude denok! Pausoz pauso etxera!



Kultur agenda uneoro eskura



Hilberriak urteurrenak · eskertzak

ataria@ataria.eus
943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu.
Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.



- I. URTEURRENA -

Maria Rosario Zelaia Agirrezabala

2025eko maiatzaren 12an hil zen.

- Goian Bego -

Familiak jakinarazten dizue oroitzapen meza
igandean izango dela 10:00etan Ugarteko
Errosarioko Andre Mariaren parrokian.

UGARTE-AMEZKETA, 2026ko maiatzaren 8an.

PROGRESIBOEN HILABETEA

2MÓ 259€

batzuk eguzkitakoak izan daitezke



multiópticas

943 69 84 70
San Frantzisko, 23
TOLOSA



hitzordua eskatu

www.multiópticas.com

